

GAZTE UNIBERTSITARIOEN BIZIPENAK HIZKUNTZA IKASKUNTZAN

Feli Etxeberria Sagastume

Euskal Herriko Unibertsitatean-Pedagogiako katedraduna

Helbide elektronikoa: feli.etxeberria@ehu.es

SARRERA

Atzean geratzen ari da dagoeneko hizkuntza bakarreko eskolaren ereduak, hizkuntza bakarreko gizartean isla baitzen hura. Gure egungo errealitatea, ordea, anitza da zentzu askotan, bai kulturaren arloan, baita hizkuntzaren arloan ere. Eskolak atek ireki behar dizkio gizartearen globaltasunari, eta kulturen eta hizkuntzen arteko bizikidetzarako prest dauden ikasleak prestatzea dagokio. Euskal Hezkuntza-Sistemaren helburu nagusia, hizkuntza eremuan, komunikazio-gaitasun ona lortzea da euskaraz nahiz gaztelaniaz. Horrekin batera, beste helburua ikasleak gutxienez atzerriko beste hizkuntza batean trebatzea da, betiere lehenbiziko hizkuntza errespetatuz, jatorrizko beste hizkuntza batzuk dituzten ikasleentzat kasuan. Konplexua da benetan gai horri eskola-ikuspuntutik heletzea, eskolaren xedeak ez baitu izan behar euskararen eta gaztelaniaren artean dagoen desoreka parekatzea. Alabaina, eskolak ekarpen handia egiten du euskararen normalkuntzaren garapenean, bilakaera oso positiboa gertatu baita euskararen ezagutzaren arloan.

Gaur egun, EAEko unibertsitate-ikasle gehienak elebidun hezkuntzaren erreferentziazko hizkuntza-ereduetakoren batean ("A", "B" edo "D") eskolatuak izan dira. Gehienek euskara edo gaztelania dute bigarren hizkuntza —batez ere Elebitasunari buruzko 1983ko Dekretua onartu zenetik aurrera—, eta atzerriko hizkuntza bat ikasten dute (ingeleza, frantsesa...) eremu akademikoan.

Lan honen abiapuntua hizkuntzak ikasteko prozesuen bizipena da, baita horrek berekin dakarrena ere, hainbat testuingurutan. Interesgarria da hizkuntzen ikaskuntza hainbat egoeratan nola gauzatzen den hausnartzeko. EHU-n Pedagogia eta Psikopedagogia ikasten duten 140 ikaslearen idatzizko kontakizunak hartuko ditugu oinarri gisa. Lan hau egiteko ideia Hizkuntzaren Psikopedagogia izeneko irakasgai baten baitan sortu zen. Irakasgai honen inguruan ikasleek zer zekiten eta zer espero zuten aztertzean, oso eztabaida interesgarria sortu zen pertsona horien prestakuntzari begira, hizkuntza anitzeko hezkuntza-programetan parte hartuko baitute profesional gisa. Ikasle bakoitzak hizkuntzak ikasteko bere prozesuari buruzko diskurtsoa sor zezan, elebidun edo eleaniztun izateko zer ibilbide egin duten idazteko eskatu genien. Ikasle bakoitzak bere kontakizuna nahi bezala idatz zezakeen arren, arlo jakin batzuk nabar-

B ereduak eskolatutako ikasleek baloratu egiten dituzte metodo desberdinak. Irakasleen eginkizuna nabarmentzen dute, batez ere jolasak eta musika erabiltzen zituztenean hizkuntza ikasteko.

Komunikabideak erabiltzeko beharra ere azpimarratzen dute (telebista, irratia, musika...) euskara ikasten laguntzeko.

"D" ereduko ikasleek motibazio desberdinak adierazten dituzte euskaraz mintzatzen dena guraso bakarra denean edo biak mintzatzen direnean. Guztiak bat datoz euskara ikasteak hizkuntza indartzen duela esatean, baina diskurtso desberdinak dituzte euskara ikasteko beharrari eta euskara gizarte-eremuetan zabaltzeko konpromisoari dagokionez.

“A” ereduan, hizkuntza inposaketa bidez ikasteko arrazoia nabarmentzen da; “D” eta “B” ereduetan, berriz, gaztelaniaren inposaketak ekarri duen euskararen galera eta horrek eragiten duen errusentimendua nabarmentzen dira.

Euskara gainditzeko irakasgai bat da, eta azterketek eragiten duten presioa hizkuntza bat ikasteko motibazioa baino handiagoa izaten da”.

mentzeko eskatuzitzaiei: norberaren hizkuntza-testuinguruak, eskolan izandako ikaskuntza-esperientziak, ikasteko moduak, hizkuntzen balioak eta abar.

Ikasleek idatzitako kontakizunak aztertzeke, bi dimentsio hartu dira kontuan: norberaren etxean hitz egiten diren hizkuntzak eta eskolako hizkuntza-eredua. Edukiak aztertzeke orduan, gai hauek hartu ziren irizpide nagusitzat: hizkuntzen ikaskuntza prozesuaz nola mintzatzen diren, hizkuntzak ikasteko motibazioa nola azaltzen duten eta hizkuntzekiko sentimenduak nola adierazten dituzten.

HEZKUNTZA-TESTUINGURUA

Oro har, euskal hezkuntza-sistemari aitortu egin zaio elebidun irakas-kuntzan izan duen eginkizun garrantzitsua. Bada, ordea, arrisku bat: euskararen ikaskuntza beste irakasgai batzuen —matematika, natura-zientziak...— ikaskuntzarekin parekatzea. Irakasgai horien guztien kasuan, haurrak hutsetik abiatzen dira eskolan hasten direnean. Euskararen ikaskuntza haiekin parekatuko balitz, zeharo alboratuko genuke hizkuntzak komunikazioan duen funtsezko eginkizuna, baita hizkuntzaren esanahia ere nortasun pertsonala nahiz soziala osatzeko prozesuan. Hori dela-eta, euskararen irakaskuntza/ikaskuntza egungo testuinguruan bermatzeko ezinbestekoa da eskolaz kanpoko errefortzua; errefortzu hori, gizarterabilerari dagokio. Euskararen minorizazioari eta ikasleek testuinguru akademikitik kanpo duten hizkuntza-jokabideari erreparatuz gero, argi dago hizkuntza horren erabilera eremu akademikora mugatzen dela. Elkarrekintzari garrantzi handia eman zaion arren —ikasi beharreko hizkuntza integratuz, Hamers (1992), Genesee (1992)—, badira euskararen erabilera mugatzen duten beste faktore batzuk ere. Hizkuntza bat ikasteko, behar-beharrezkoak dira hizkuntza horrekiko afektu-loturak gartztea, lotura pragmatikoez eta instrumentalez gain; izan ere, hizkuntza norberaren bizitzan eta kulturaren integratzen denean, inklusio-sentimenduak sortzen dira. Horretarako, ordea, ahalegin handiagoak egin behar dira, baita eskola-eremutik kanpo ere. Fishmanek (1991) galdera hau jartzten du mahai gainean: irakaskuntza elebiduna gai al da bere kabuz hizkuntza jakin bat ordezkatzeko prozesua leheneratzeko? Eskolak garrantzi handia du ezagutzaren garapenean; horrez gain, erakunde horrek eragin handia du ikasleek garatu behar duten hizkuntza-jokabidean ere. Hori guztia hala izanik ere, familiak eta gizarteko beste hainbat sektorek ere izugarrizko ardura dute hizkuntza horrek galdutako eremuak berreskuratzeko orduan.

Egoera horren aurrean, hainbat galdera sortzen dira: zer iritzi dute ikasleek eskolan hizkuntzak ikasteko bizi izan duten prozesuari buruz? Motibazio desberdinak al dituzte hizkuntza bat edo beste ikasteko orduan? Euskarari garrantzi handiagoa ematen dioten ereduetan ikasi

duen pertsonen besteek baino gehiago sentitzen al dute hizkuntza hori nortasun-zeinu gisa? Gai horiek guztiak ulertzeko, esparru zabalago batean kokatuko dugu jarraian gure aztergaia.

AZTERKETAREN TESTUINGURU-ESPARRUA

Hainbat eta hainbat ikerlanek garapen elebidunaren alderdi ugari adierazi dituzte, eta agerian geratu da zenbateko eragina duten faktore sozio-psikologikoen elebitasuna osatzen duen hizkuntza bakoitzari lotutako balioak barneratzeko prozesuan. Halaber, subjektu elebidunen jokabidea baldintzatzen duten gizarte-indarren garrantzia ere aztergai izan da sarritan. Askoren baitan Fishman (2001); Lambert (1980); Gardner (1985); eta Sigüan (2001), hizkuntzen izen ona eta erabilera haiek ikasteko motibazioekin egon daitezke lotuta. Beste zenbaiten ustez, berriz (Garcia,O; eta Baker C.1995); gizarte- eta kultura-testuinguruak ezinbesteko elementuak dira garapen elebidunerako. EAren testuinguruan, euskarak badu gizarte-oinarri jakin bat, horixe baita euskal gizartearen berezko hizkuntza. Alde horretatik, jarrerai buruzko ikerketa-lana euskal testuinguruan faktore garrantzitsua da euskararen sustapenerako, Azurmendi et al (2001); Martinez de Luna I (2001); Perales J.(2001);Torres GuzmanM-&Etxeberria F.,(2005).

Hizkuntzaren integrazioa eskola- eta gizarte-testuinguruetan faktore erabakigarria da euskara bigarren hizkuntza gisa ikasten dutenak motibatzen. Alde horretatik, elkarrekintzarako aukera gehiago dituzten gizarte-testuinguruetan, ikasleek abantaila gehiago dituzte hizkuntza-gaitasuna lortzeko; hala, esan genezake ikasleek hizkuntza eskola-testuinguruetan eta bertatik kanpo erabiltzeko aukera dutenean indartu egiten dela haien hizkuntza-trebetasuna Hamers, J. (1992); Siguan eta Mackey (1986); Arzamendi & Genesee (1997); Lasagabaster, D.& Cenoz, J.(1998); Etxeberria F. (2002); Etxeberria,Fx.(2006); Pikabea, I.(2007). Motibazioa aztertzeko orduan, bi mota bereizten dira: lehenbizikoa, hizkuntza jakin bat ikasteak izan dezakeen erabilgarritasuna eta, bestea, hizkuntza jakin hori hitz egiten duen taldean sartzeko gogoia. Hizkuntza osagai garrantzitsua da inondik ere talde jakin batekin identifikatzeko: hori hala izanik, hizkuntza jakin batekiko jokabidea asko alda daiteke hizkuntza horrek gizarteko esparruetan —hezkuntzan, lanean, lagunartean, familian, aisialdian...— duen eginkizunaren arabera.

Gure kasuan, hauxe galdetu beharko genuke: motibazio horiek desberdinak al dira hizkuntza-ereduek biltzen dituzten talde gutzietan? Ba al dago aldaketarik hizkuntzaren arabera?

Zer arrazoi ageri dira hizkuntzak ikasteko bizipenean? Arrazoi sozialak, kulturalak, prestakuntzazkoak, afektuzkoak, ideologikoak...? Hizkuntzaren ikaskuntzak norberaren gizarte-testuinguruarekin du zerikusia. Hizkuntza berri bat ikasteko interesa estuki lotuta dago hizkuntza

“D” ereduan ikasitako ikasleek adierazitako sentimenduak harrotasunarekin daude lotuta. Ikasle horiek altxor gisa hartzen dute euskara, eta polita eta positiboa dela esaten dute. Segurtasunezko hizkuntza dela diote euskal eremuetan bizi ahal izateko, baita elementu aberasgarria ere.

“Gauza da kasu batzuk alde batera utzita, ni erlazionatzen nintzen pertsona guztiek zekiten euskaraz hitz egiten, baina gaztelaniaz hitz egiteko joera hartu genuen eta hau gaur egun ere mantentzen da”.

horrek, eskola-eremuaz gain, gizarteko beste arlo batzuetan dituen funtzioekin. Ikuspegi horren arabera, hizkuntza bakoitzari ematen zaizkion balioek eta haiek ikasteko motibazioek lotura nabarmena izan dezakete jarrerekin, erabilerekin, egokitzapen pedagogikoarekin eta kultura-nortasunarekin.

Ikuspegi pedagogikoari helduz gero, jakin badakigu hizkuntza bat ikasteko ez dela nahikoa harekin harremanetan jartzea. Ellisen (1985) eta Wong Fillmoren (1991) arabera, elkarrekintza funtsezkoa da bigarren hizkuntza bat ikasteko inputak eta outputak nola elkarreragiten duten ulertzeko. Snow, C.E.(1992) hizkuntza-outputari buruzko ekarpen interesgarria egiten du. Egile horren arabera, behar-beharrezkoa da hizkuntzak eskolan nahiz eskolatik kanpo hitz egiteko aukera izatea, haiek ondo ikasteko. Horrenbestez, esan genezake hizkuntza ikaskuntza-bitarteko gisa erabiltzen denean gehiago erreparatu behar ziola esanahiari formari baino. Jakina, gaitasun kognitiboak eragin handia du hizkuntzak ikasteko orduan, baina elkarrekintza errazten duen gizarte-inputa ezin da inolaz ere ahaztu. Gizarte-elkarrekintza komunikazioaren funtsezko oinarri da, eta berekin dakartza informazioa, negoziazioa, interpretazioa, eskolatzea eta abar. Wertsen aburuz (1984), eskolatzea estuki lotuta dago irakaskuntzarekin eta ikaskuntzarekin, elkarrekintza bereziki nabarmenduz. Ikuspegi horren bidez, ikasi beharreko hizkuntzaren integrazio-modalitateen arabera definitutako hizkuntza-ereduen baitan azter daitezke bizipenak.

AZTERKETAREN DESKRIBAPENA

Ikerlan honen helburua hizkuntzak ikasteko prozesuaren ikuspegia eta bizipena ezagutzea da, baita jasotako irakaskuntza eta hizkuntza berriak ikasteko motibazioak eta balorazioak ere. Aurrez esan bezala, datuak ikasleen idatzizko kontakizunetatik hartu dira. Ikerlanaren metodologia kualitatiboa da. Ikasle bakoitzak nahi bezala idatzi zuen bere kontakizuna, baina idazten hasi baino lehen zenbait alderdi lehenesteko eskatu zitzaion: motibazioa, jarrerak, interesak, hizkuntzen balioak, garatutako pedagogia eta norberaren bizipenarekin lotutako beste batzuk. Jasotako edukien azterketak zenbait argi eta ilun mahaigainera ditzake, guztiak ere alor pedagogikoan hobekuntzak sartze aldera.

Bildutako informazioa aztertzeke, helburuen eta teoriaren arabera finkatutako kategoriei erreparatu zaie. Eduki-analisia Nudist programaren bidez egin da, euskalduntze-prozesuaren baitan pedagogiaren eta hizkuntzaren ikaskuntzaren artean finkatutako loturak oinarri hartuta. Hona hemen kategoriak: hizkuntza-ikaskuntzaren prozesua; hizkuntzak ikasteko motibazioa; eta hizkuntzak ikastearen inguruan adierazitako sentimenduak. Diskurtso analisia etxeko hizkuntza eta eskolako eredu argitan egin da. Hona hemen azterketarako kontuan hartu diren alderdiak:

Hizkuntzak ikasteko prozesuari buruz hitz egitean hautemandako desberdintasunak.

Hizkuntzak ikasteko motibazioa adieraztean hautemandako desberdintasunak.

Hizkuntzekiko sentimenduak adieraztean hautemandako desberdintasunak.

EMAITZAK

Kontakizunetan, hainbat ikasleek nabarmendu egiten dute zeinen desberdina den ama-hizkuntza ikasteko prozesu naturala eta bigarren hizkuntza ikasteko prozesua. Euskararen ikaskuntzan jarri dute arreta guztia; izan ere, EAEn, hizkuntzak ikasteari buruzko gizarte-diskurtsoa euskararen inguruan egituratzen da. Horrez gain, ikasle askorentzat, euskara da ikasi beharreko bigarren hizkuntza. Jarraian, hiru kategorien analisia aurkezten dugu: euskalduntze-prozesua, euskara ikasteko motibazioa eta euskararen inguruko sentimenduak eta balorazioak, ikasleek ikasi duten hizkuntza-ereduaren (A, B, D) eta norberaren familiaren hizkuntzaren arabera.

“D” ereduari dagokionez, euskara da ikasteko eta irakasteko hizkuntza nagusia; alabaina, eredu horretan ikasi duten ikasleen hizkuntza-aniztasuna oso handia da. Batzuek euskara dute ama-hizkuntza; beste batzuek, berriz, gaztelania; eta beste batzuk elebidunak dira txiki-txikitatik. Gauza bera gertatzen da ikasle horien gizarte-inguruan hitz egiten diren hizkuntzekin. Etxean komunikatzeko erabiltzen den hizkuntzari eta ikasleen inguruko hizkuntzei erreparatuz gero, hainbat egoera aurkitu ditugu “D” ereduan ikasitako ikasleen artean:

a) etxean nahiz gizarte-eremuan euskara komunikatzeko tresna nagusi gisa erabiltzen dutenak; b) elebidunak etxean eta euskararik gabekoak gizarte-inguruan; d) elebidunak etxean eta euskara mintzatzen eta entzuten dutenak gizarte-inguruan; e) etxean nagusiki euskara hitz egiten dutenak eta euskararik gabekoak gizarte-inguruan; f) euskararik mintzatzen ez dutenak etxean baina bai gizarte-inguruan; g) etxean nahiz gizarte-inguruan euskararik hitz egiten ez dutenak.

Aurreko egoera horietako batean dauden ikasleak gustura sentitzen dira gurasoek hautatutako hizkuntza-ereduekin. Euskara txikitatik ikasteko apustu bat dela adierazten dute. Ikasle horiek guztiek “D” ereduaren balorazio positiboa egiten dute, eta hizkuntzak ikastea zeinen garrantzitsua den adierazi dute. Hizkuntza-aniztasunaren aldekoak dira.

Lehen galderari dagokionez: Ba al dago desberdintasunik euskalduntze-prozesua bizitzeko moduan ikasleen hizkuntza-ereduaren edo etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera?

Euskaraz mintzatzen diren gurasoak dituzten eta D Ereduan ikasten duten ikasleek nabarmendu egiten dituzte idatzizko eta hitzezko hizkun-

“B” ereduko ikasleek euskara galdu egin dela adierazten dute, eta gizarte-eremu berriak sortzeko beharra sentitzen dute. Horrez gain, norberaren erantzukizuna ere nabarmentzen dute, hizkuntzari eusteko eta hura hedatzeko orduan. Alabaina, bada ageriko kontraesan bat: izan ere, alde batetik afektu-lotura sendoak dituzte euskararekiko, baina, beste alde batetik, nahiago dute gaztelaniaz idatzitako testuak irakurtzea, errazagoa egiten baitaie.

*Harro sentitzen dira
elebidun izanagatik, eta
hizkuntzekiko errespetua
balioztatzen dute.*

*A ereduan ikasitako
ikasleak ugariagoak dira,
eta askotariko
sentimenduak adierazi
dituzte. Batzuek,
euskararekiko sentimendu
positiboak adierazten
dituzte; beste batzuek,
berriz, baztertuta sentitu
direla adierazi dute.
Hizkuntzak ikastearekiko
jarrera positiboa agertzen
dute, baina euskara
ikasteko derrigortuta
sentitzen dira.*

tzaren artean dauden desberdintasunak. Haien hizkuntza-kontzientzia euskarara mugatzen da, lehen hizkuntza gisa. Ikaskuntzari dagokionez, alderdi gramatikalak eta ortografia azpimarratzen dituzte garatu beharreko gaitasun gisa. Ikasle horiek bereziki nabarmendu dute norberak bere euskalkia hitz egiten duela, baina eskolan euskara batua ikasi behar izan dutela. Ikasle horien aburuz, euskalkiak eskolan ikasitako euskara arautua baino jatorragoak dira. Aipu hauek argi uzten dute aipatutako ideia hau: “euskarazko eskoletan ikasi nuen, ziur asko, euskara batuan hitz egiten. Alabaina, oso arraroa egiten zitzaidan euskara batuan idaztea beti nire euskalkian hitz egiten nuena”. “Institutuan hasi aurretik eta institutuan bertan ohartu ginen gure euskalkia erabili ordez, euskara batua erabiltzen genuela, eta guk geure euskara babestu behar genuenaren kezka sortua zitzaigun”.

Euskaraz mintzatzen duen guraso bat edo bat ere ez izanik D ereduan ikasten duten ikasleentz artean, euskalduntze-prozesuaren inguruko diskurtsoak familia- eta gizarte-testuingururantz jotzen du sarritan. Ikasle horietako askok norberaren auzoa edo herria aipatzen dute euskara ikasteko eremu gisa, batez ere oso giro euskaldunetan bizi direnen artean. Hizkuntzak gizarte-euskarri txikia duela adierazten dute. Ikasle horietako askok hizkuntzarekin harremanetan jartzeko gogoia agertzen dute. “Eskolaz kanpoko jardueretan (solfeo, antzerkia...) etengabeko harremana nuen euskararekin, eta horrek indartu egiten zuen nire motibazioa. Nire lagun batzuk baserrian bizi ziren, eta euskaraz mintzatzen nintzen haiekin”. “Gero eta kontaktu gehiago izan nuen euskararekin, eta ilusioa egiten zidan amari esaldi solte batzuk erakustea. Izan ere, biok genuen euskara ikasteko interesa”.

Beste ikasle batzuek egin behar izan zuten ahalegina aipatzen dute, gurasoek seme-alabak euskalduntzeko borondatea zela-eta. “Ni gaztelaniaz bizi nintzen. Etxean, kalean eta lagunekin gaztelaniaz mintzatzen nintzen. Hori guztia aldatu egin zen gurasoek “D” ereduan sartu nindutenean eta euskara ikasi nuenean”. “Nire ustez,” D” ereduari esker izan naiz gai euskaraz nahiz gaztelaniaz moldatzeko, bai maila pertsonalean, baita maila profesionalean ere...”. “Hasieratik gustuko nuen euskara, polita eta alai zen eskolara joatea. Askok abestu eta jolasten genuen. Ustekabean hitz egiten nuen euskaraz”.

Ikasle horiek ez dute metodologiarik aipatzen, euskara baitzen ikasteko hizkuntza nagusia. Hala ere, inguru euskaldunetan bizi diren ikasleek euskararen alderdi gramatikalak azpimarratzen dituzte.

Oro har, “B” ereduko ikasleek kritikatu egiten dute euskararekin izandako harreman urria, eta beren eskola-esperientzian euskararen presentzia nahiko txikia izan dela adierazten dute: eredu horretako ikasleentz arabera, gaztelaniak euskarak baino askoz ere pisu handiagoa izan du beren eskolatzeko-prozesuan.

“A” ereduan ikasi duten ikasleentz arabera, ez dute euskararen presentziarik hauteman eremu publikoetan; horrez gain, euskaraz mintza-

tzeko oso aukera gutxi izan dituztela ere aipatzen dute (etxean, lagunartean...). Halaber, eskolan eta komunikabideetan gaztelania erabat nagusi izan dela adierazten dute.

Euskaraz mintzatzen ez duten gurasoak izanik "A" eta "B" ereduan ikasitako ikasleek euskarak gizar-tean aurrerapauso nabarmenak egiten dituela aipatzen dute, eta horrek areagotu egiten duela hizkuntza hori ikasteko motibazioa. Ikasle horiek azaltzen dutenez, ez dute euskara behar adina ikasi, eta hainbat kasutan euskaltegi-eta barnetegietara jo behar izan dute euskara hobeto ikasteko.

Hizkuntza irakasteko metodologia —Euskara beste irakasgai gisa erabiltzen denean, bereziki— erabat kontrajartzen da komunikazioan oinarritutako metodoekin; izan ere, metodo horiek hizkuntzaren ikuspegi funtzionalago batetik integratzen dute gramatika. "Gogoan ditut euskarazko eskolak: aditzak, deklinabideak, gramatika eta ariketak... buruz ikasi behar ziren guztiak". "Eskolan garrantzi gehiago ematen zioten idatzizko euskarari hitzezko euskarari baino".

B ereduan eskolatutako ikasleek baloratu egiten dituzte metodo desberdinak. Irakasleen eginkizuna nabarmentzen dute, batez ere jolasak eta musika erabiltzen zituztenean hizkuntza ikasteko. Komunikabideak erabiltzeko beharra ere azpimarratzen dute (telebista, irratia, musika...) euskara ikasten laguntzeko.

"A" ereduko ikasleek nabarmendu egiten dute inguruan hizkuntza agerian jartzeko beharra, iragarkien, kartelen eta abarren bidez. Talde horretako ikasleek euskara benetako testuinguruetan ikusi eta entzuteko beharra adierazten dute: "Niretzat, oso garrantzitsua izan zen musika, iragarkiak eta abar euskaraz entzutea eta ikustea, zenbateraino ulertzen nuen jakiteko". Baliabide horiek guztiak hizkuntza zenbateraino menderatzen den egiaztatzeko tresna egokiak dira. Alabaina, "B" ereduko ikasleek hitzezko hizkuntzarekin kontaktuan jartzeko baliabideak aipatzen dituzte. Agian, horrek esan nahi du "B" ereduan hizkuntzaren irakaskuntza integratuago dagoela curriculumean, eta elkarreragiteko aukera gehiago ematen direla. Alabaina, "B" ereduko aniztasuna aipatzen dute. "Hala ere, nire irakasle izandakoak esan zidan nahiz eta ofizialki "B" ereduan aritu "D" balitz bezala jokatzeko zutela, alegia dena euskaraz eginez". "A" ereduan ikasitako ikasleek argi eta garbi kritikatzeko dute eredu, ez baitu hizkuntza ikasteko baliabiderik eskaintzen. Adibide gisa, hona hemen aipu batzuk: "Udan zehar, euskaltegi-joan nintzenean, aurrerapauso handiak eman nituen; alabaina, egunerokotasunera itzuli nintzenean, nire maila berriz jaitsi zen". Talde horretako ikasle batzuek azpimarratu dute eskolazte-prozesuan euskara galdu egiten dutela eta heldutasunean hizkuntza hori berreskuratzeko beharra izaten dutela.

Euskara ikasteko bizipenari dagokionez, ikasleek adierazi dute "A" eredu dela desegokiena eta "D" eta "B" ereduak, berriz, egokienak. Ika-

Hizkuntzak ikasteko prozesuen bizipenaren ardatza euskara izan da. Bizipenak desberdinak izan arren, haiek ereduaren baitan alderatzen direla ikusi da. "D" eredukoak euskararen aldeko apustutzat hartzen dute gurasoak egin zuten eskola ereduaren hautaketa. "A" ereduko zenbaitetik kritikatu egiten dute gurasoek "B" ereduaren hautatu ez izana. "B" eredukoak, berriz, elebidun sentitu dira.

"D" eredukoak, jatorriaz euskaldun direnek eta giro euskaldunagoan bizi izan direnek, euskalkien defentsa egiten dute euskara batuaren aurrean.

Zenbat eta euskaldunagoa izan hizkuntza-eredua orduan eta nabarmenagoa da metahizkuntzaren kontzientzia.

Euskaldun girokoenak euskararen ikaskuntza gramatikarekin lotzen duten bitartean, inguruan euskara gutxiago zutenek eskolaz kanpoko ekintzen garrantzia azaldu dute beren ikaskuntza prozesuan.

si beharreko hizkuntza zenbat eta gehiago integratu eskola-curriculumean, orduan eta hobe izango da hizkuntza horren ikaskuntza.

Bigarren galderari dagokionez: Ba al da desberdintasunik ikasleen artean euskara ikasteko motibazioaren inguruan?

Ikasle guztiek euskara ondo jakitea eskatzen duten ikasketak aukeratu dituzte, eta hizkuntza horren balio instrumentala adierazten dute. Alabaina, badira azpimarratu beharreko zenbait desberdintasun. Motibazio horren adierazpena nabarmenagoa da “A” eta “B” ereduiko ikasleen artean, nahiz eta “D” ereduikoen artean ere ageri den.

“D” ereduiko ikasleek, inguru euskaldunetan bizi direnek, euskararen eta gaztelaniaren arteko botere-harremanak nabarmentzen dituzte. Euskara ikastea ezinbestekotzat jotzen dute, horixe baita Euskal Herriaren eta euskal kulturaren hizkuntza; ikasle horiek euskara indartzeko eta sustatzeko konpromisoa adierazten dute. Haien ustez, Euskadin bizi diren pertsona guztiek euskararen inguruko gutxieneko ezagutza batzuk izan behar dituzte, Euskadiko jatorrizko hizkuntzarekiko errespetuagatik eta hura erabiltzen jakiteagatik. Euskara ikasteko beste motibazio bat ere adierazten dute: hizkuntza aldetik hizkuntza berezia dela eta hura ikasten duena euskararekiko harro sentitzen dela”. “ Esan beharra daukat Euskal Herriaren kasuan euskarak esanahi berezia daukala niretzat, euskararekiko ditudan sentimenduak ez dute zerikusirik gaztelarekiko. Barru barruan daramat nahiz eta askotan gaztelera mintzatzen naizen”.

Euskaraz mintzatzen diren gurasoak izanik “B” eta “A” ereduetan ikasitako ikasleen kasuan, euskara euskal kulturaren elementu bat dela azpimarratzen dute motibazioaz mintzatzen direnean.

“D” ereduiko ikasleek motibazio desberdinak adierazten dituzte euskaraz mintzatzen dena guraso bakarra denean edo biak mintzatzen direnean. Guztiak bat datoz euskara ikasteak hizkuntza indartzen duela esatean, baina diskurtso desberdinak dituzte euskara ikasteko beharrari eta euskara gizarte-eremuetan zabaltzeko konpromisoari dagokionez.

“B” ereduian, euskaraz mintzatzen den guraso bakarra duten ikasleek nortasun-elementuak aipatzen dituzte euskara ikasteko motibazio gisa. Hizkuntza-kontzientzia aipatzen dute: “nik beti izan dut motibazio handia euskara ikasteko; izan ere, nire herriko hizkuntza ezagutzea eta menderatzea da, nire ustez, motibaziorik handiena”.

“A” ereduiko ikasleen taldeko guztiek adierazten dute euskara beharrezkoa dela lanerako. Gurasoetako batek euskaraz hitz egiten duen ikasleen kasuan, nortasunarekin lotzen dute sarriago euskara ikasteko motibazioa. “A” ereduian, hizkuntza inposaketa bidez ikasteko arrazoiak nabarmentzen da; “D” eta “B” ereduian, berriz, gaztelaniaren inposaketak ekarri duen euskararen galera eta horrek eragiten duen erru-sentimendua nabarmentzen dira. “A” ereduiko ikasleek idatzitako kontakizunetan sarritan aipatzen da porrotaren bizipena euskara ikasteko proze-

suan. Kasu horretan, “oso elementu motibagarri gutxi ageri dira; izan ere, nahi ala ez, euskara gainditzeko irakasgai bat da, eta azterketek eragiten duten presioa hizkuntza bat ikasteko motibazioa baino handiagoa izaten da”. “Oso motibazio gutxi izan dut, eta amorrua sentitu dut gainera euskara derrigorrez ikasi behar izateagatik”. “Inguruaren eskakizunen ondorioz, euskararen azken helburua titulu bat lortzea da, nahiz eta niretzat pertsonalki baliagarria izan lortutako maila.”

Hirugarren galderari dagokionez: “D” ereduari ikasitako ikasleek adierazitako sentimenduak harrotasunarekin daude lotuta. Ikasle horiek altxor gisa hartzen dute euskara, eta polita eta positiboa dela esaten dute. Segurtasuneko hizkuntza dela diote euskal eremuetan bizi ahal izateko, baita elementu aberasgarria ere: “...Euskara hizkuntza gutxitua eta zapaldua izanik honen erabilerak harrotasun bat ematen du askotan. Beronen erabilerak handitasuna ematen dudala iruditzen zait, erabiltzen ez dutenei kontrajarriaz, hauei handitasuna beste hizkuntza batek ematen baitie. Euskalduna izateak harrotasuna sortu behar digu eta ez kikildu hizkuntza zapaltzailearen aurrean”. Horrelako aipuek agerian uzten dute hizkuntza kulturarekin eta nortasunarekin lotuta dagoela. Horrez gain, frustrazioa ere agerian uzten dute, euskara hizkuntza gutxitua izateagatik: “Euskarari buruz izan ditudan sentimenduak oso sakonak izan dira beti, hemen, Euskal Herrian, gure hizkuntza beti izan da zanpatua. Horrela neure izaera euskararik gabe ez zen ezer izango, hau da, neure kultura, musika, ohiturak, ea..., desagertu egingo lirатеke eta horregatik diot hori”.

Zenbait ikaslek baztertu egiten dute bigarren hizkuntza (gaztelania, kasu honetan) ikasteko aukera: “Ikastolan gai hori landu izan dudan guztietan, beti arin-arin gainditzen nuen irakasleak beti esan ohi zidan, oso gaizki espresatzen nintzela, eta ortografiatzeko faltak oso ugariak zirela. Beraz hori dela eta, gaztelera hizkuntzari ez diot inoiz estimurik izan, eta batzuetan gorrotatzera iritsi naiz ere”. Bitxia da ikustea hizkuntza berberetan batzuk baztertuta sentitzen direla: “Euskaldun zaharrek, euskara batuaz egin ordez, euskalkian mintzatzen dira maiz, eta gutxiespena sentiarazten didate”. Hurrengo aipuek nahiko ohikoa den jokabidea adierazten dute: “Hasiera hasieratik espazio eta egoera guztietan erabiltzen nuen euskara, baina urteekin erdararen erabilera nagusitzen joan da lagunartean ,jatetxean, aisi aldian”. “Gauza da kasu batzuk alde batera utzita, ni erlazionatzen nintzen pertsona guztiek zekiten euskaraz hitz egiten, baina gaztelaniaz hitz egiteko joera hartu genuen eta hau gaur egun ere mantentzen da”

“B” ereduko ikasleek euskara galdu egin dela adierazten dute, eta gizarte-eremu berriak sortzeko beharra sentitzen dute. Horrez gain, norberaren erantzukizuna ere nabarmentzen dute, hizkuntzari eusteko eta hura hedatzeko orduan. Alabaina, bada ageriko kontraesan bat: izan ere, alde batetik afektu-lotura sendoak dituzte euskararekiko, baina, beste

“B” eredukoak euskararen integrazio handiagoaren premia aipatu dute euskararen ikaskuntzarako, bai eskolako ekintzetan, baita bizibidean ere. Euskara bidezko harremanekiko interesa azpimarratzen dute elkarrekintza bidezko ikaskuntza aktiborako. Eta irakaslearen eragina aldarrikatu dute ikaskuntza/irakaskuntza n. “A” eredukoek, berriz, idatzizko egiturarekin lotzen dute euskararen ikaskuntza, eta balio handia ematen diote hizkuntzaren ikusizko presentziari, hura zenbateraino ulertzen zuten egiaztatzeko baliagarria zitzaielako. Badirudi hizkuntza idatzian oinarritzen den ikaskuntza bizi izan dutela, eta ez hiztunen arteko komunikazioan.

Argi dago eskolako ereduaz gain etxeko hizkuntza, lagunena artekoa, bizi girokoa eta beste zenbait faktore eragile ere badirela hizkuntza gaitasunaren lorpenean. Hala ere, hizkuntza konpetentziari dagokionez, agerian geratu da "D" eredukoek ziurtasun handiagoa dutela "B" eta "A" eredukoak baino, baita "B" eredukoek "A" eredukoek baino ere.

alde batetik, nahiago dute gaztelaniaz idatzitako testuak irakurtzea, errazagoa egiten baitzaie. "B" ereduan ikasi duten ikasle batzuek gaztelanieren inposaketa aipatzen dute, baita hizkuntza horren indarra beren eguneroko inguruetan: euskara galtzen ari den sententzioaz mintzo dira batzuk. Euskara ikasteko ahaleginak egin behar direla onartzen dute, eta gaitzetsi egiten dute gizartean euskara horren gutxi erabiltzea. Harro sentitzen dira elebidun izanagatik, eta hizkuntzekiko errespetua balioztatzen dute.

A ereduan ikasitako ikasleak ugariagoak dira, eta askotariko sentimenduak adierazi dituzte. Batzuek, euskararekiko sentimendu positiboak adierazten dituzte; beste batzuek, berriz, baztertuta sentitu direla adierazi dute. Hizkuntzak ikastearekiko jarrera positiboa agertzen dute, baina euskara ikasteko derrigortuta sentitzen dira.

Gizartean eta lan-munduan euskara garrantzitsua dela esaten dute gehienek: "hemen lan egiteko izango ez balitz, ez nuke inolako beharrik izango euskara ikasteko". "Une hauetan, euskarak garrantzi handia du, eta hezkuntza-arloan lan egiteko ikasi egin beharko dut derrigorrez". Ikasle gehienek, oro har, konfiantza gutxi sentitzen dute beren euskararekiko. "... hamabost urtez aritu naiz ikasten, baina besteekin komunikatzeko orduan, ezer jakingo ez banu bezala sentitzen naiz... urteek aurrera egin ahala zenbait oinarri (gramatikalak, semantikoa, sintaktikoa...) ikasi nituen, baina komunikatzeko erabilera ahaztu egiten zitzaidan... hitzak ikasten nituen zerrendak buruz ikasiz, itzulpen-arietak egiten nituen, testuak irakurtzen nituen, hutsuneak betetzen nituen testuetan... euskaltegia joan behar izan nuen emaitza hobekitzeko, batez ere hitzezko komunikazioan. Barnetegian oso esperientzia ona izan dut: euskaraz hitz egiten ikasi dut, eta oso ondo sentitu naiz".

ZENBAIT GOGOETA

Hizkuntzak ikasteko prozesuen bizipenaren ardatza euskara izan da. Bizipenak desberdinak izan arren, haiek ereduaren baitan alderatzen direla ikusi da. "D" eredukoak euskararen aldeko apustutzat hartzen dute gurasoak egin zuten eskola ereduaren hautaketa. "A" ereduko zenbaitek kritikatu egiten dute gurasoek "B" eredua hautatu ez izana. "B" eredukoak, berriz, elebidun sentitu dira.

"D" eredukoek, jatorriaz euskaldun direnek eta giro euskaldunagoan bizi izan direnek, euskalkien defentsa egiten dute euskara batuaren aurrean. Aldi berean, elebiduntze prozesua euskararen ikaskuntzarekin lotzen dutenek hizkuntza zatitzaile gisa ere bizi dute euskalkien erabilpena; ikasle horiek bigarren mailako euskaldun sentitu dira euskalkian mintzatzen zirenen alboan. Euskal giro gutxiago dutenek goraiatu egin dute beraien ikaskuntzan eskolaz kanpoko ekintza bidezko euskarak izan duen lekua. Zenbat eta euskaldunagoa izan hizkuntza-eredua

orduan eta nabarmenagoa da metahizkuntzaren kontzientzia. Bestalde, ikasle horiek ez dute aipatu euskara edukien ikaskuntzarako eta gauzak egiteko tresna gisa erabili duteneko ikaskuntzaz, soilik euskara ikaskuntza gai modura tratatu denekoaz. “D” eredukoek, Euskara eskolako egin-behar guztietarako erabiltzen zutenez, ez dute modu esplizituan bere ikaskuntzaren berri eman. Euskaldun girokoenak euskararen ikaskuntza gramatikarekin lotzen duten bitartean, inguruan euskara gutxiago zutenek eskolaz kanpoko ekintzen garrantzia azaldu dute beren ikaskuntza prozesuan.

“B” eredukoak euskararen integrazio handiagoaren premia aipatu dute euskararen ikaskuntzarako, bai eskolako ekintzetan, baita bizibidean ere. Euskara bidezko harremanekiko interesa azpimarratzen dute elkarrekintza bidezko ikaskuntza aktiborako. Eta irakaslearen eragina aldarrikatu dute ikaskuntza/irakaskuntzan. “A” eredukoek, berriz, idatzizko egiturarekin lotzen dute euskararen ikaskuntza, eta balio handia ematen diote hizkuntzaren ikusizko presentziari, hura zenbateraino ulertzen zuten egiaztatzeko baliagarria zitzaielako. Badirudi hizkuntza idatzian oinarritzen den ikaskuntza bizi izan dutela, eta ez hiztunen arteko komunikazioan.

Hizkuntzaren erabilpenak hizkuntza gaitasuna eskatzen du. Ereduen baitako gaitasuna desberdin mailakatu da beraien artean. Argi dago eskolako ereduaz gain etxeko hizkuntza, lagunen artekoa, bizi girokoa eta beste zenbait faktore eragile ere badirela hizkuntza gaitasunaren lorpenean. Hala ere, hizkuntza kompetentziari dagokionez, agerian geratu da “D” eredukoek ziurtasun handiagoa dutela “B” eta “A” eredukoak baino, baita “B” eredukoek “A” eredukoek baino ere. Eredu bereko ikasleen artean ere, eremu akademikorako, gutxieneko gaitasun maila lortuagatik alde handiak nabarmentzen dira euskararen erabilpen mota desberdinetan.

Hizkuntzen funtzioek leku desberdina hartzen dute gizabanakoaren bizitzan; ezinbestekoa da hizkuntza gaitasuna izatea, baina ez da nahikoa, eskola eredu euskaldunenean ikasi bada ere.

Euskara ikasteko motibazio-argudioen artean, instrumentalak nagusitzen dira eta, batez ere, lan-munduarekin lotura dutenak. Hala ere, “D” eta “B” ereduko ikasleek integrazioa aipatu dute hizkuntza hori ikasteko arrazoi gisa. “D” eta “B” ereduetako ikasleek nortasun-elementu gisa ulertzen dute euskara; ez hainbeste, ordea, “A” eredukoek.

Euskararen murgilpen handiago dutenen aldetik euskara ikasteko motibazioa euskaldun izatearena da; alegia, euskara identitate kulturalarekin jartzen dute harremanetan. Hori motibazio sinbolikoa litzateke. Ematen dituzten argudioak euskararen berpiztearekin eta eskuratzearekin bat datoz. Galtzeko arriskutik ateratzeko erantzukizunetaz ere aritu dira. Hauen ustez, euskara Euskal Herriko hizkuntza denez, bertako izateko jakin egin behar da euskaraz mintzatzen, nahiz eta, inguruak baldintzatuta, sarritan gaztelerara jotzen duten.

Euskara ikasteko motibazio-argudioen artean, instrumentalak nagusitzen dira eta, batez ere, lan-munduarekin lotura dutenak. Hala ere, “D” eta “B” ereduko ikasleek integrazioa aipatu dute hizkuntza hori ikasteko arrazoi gisa. “D” eta “B” ereduetako ikasleek nortasun-elementu gisa ulertzen dute euskara; ez hainbeste, ordea, “A” eredukoek.

Hizkuntzaren gizarte-erabilera adierazten da sarritan hura ikasten laguntzeko; horretarako, hizkuntzaren gizarte ospe eta erakargarritasunak eragingo lituzke euskararen erabilpena suspertzeko harreman sareak.

Eredu guztietako ikasleek kulturarekin lotutako sentimenduak adierazi dituzten arren, baikorrenak eredu euskaldunenetakoak izan dira. Bestalde, hizkuntzaren gizarte-erabilera adierazten da sarritan hura ikasten laguntzeko; horretarako, hizkuntzaren gizarte ospe eta erakargarritasunak eragingo lituzke euskararen erabilpena suspertzeko harreman sareak. Besteekiko harremanak sare sozialetan egituratzen dira eta hor hizkuntzak bere nagusitasuna du. Euskararen ikaskuntzarako sare sozialak duen funtzioak, oso eraginkorra izateaz gain, hizkuntzaren erabilpena areagotzeko indarra ere badu. Euskara modernitatearekin loturik ikustea ezinbestekoa da, baita, geroari begira, beren ondorengoei euskara transmititzea ere.

Pedagogia eremuan, eskolari etekin handiagoa ateratzeko, Europako Erreferentzi Markoa hartzeaz gain, metodologiak barne hartu beharra du hizkuntzaren ikaskuntza elkarrekintzan oinarritzea honek erabilpena bultzatzen duelako bai ekintza bidean eta bai harremanetan. Eskolak ezin du bete hizkuntzaren lekua sozializazio prozesuetan beharrezkoa da euskara gaitasuna lortzeaz gain euskara gizarte bizitzarekin lotzea.

Gero eta errealitate anitzagoan nahasketa, dibertsitatea, eta kulturartekotasuna dira hezkuntza esparruko ezaugarri nagusiak. Hizkuntzekin batera kudeatzen jakin beharko da egungo gizarteari dagozkion zenbait dinamika sozial berri ere. Zer eginkizun dagokio eskolari euskal gizarte-an, haren kultura, hizkuntza barne, indartzeko eta berritzeko?■

ERREFERENTZIAK

- Arzamendi, J. & Genesse, F. (1997). (2001). "Reflections on immersion education in the Basque Country". In K. Johnson and M. Swain (Eds.). *Immersion Education: International Perspectives* (Pp. 151-166). Cambridge: Cambridge University Press.
- Azurmendi, M. J., Bachoc, E., Zabaleta, F. (2001). "Reversing Language Shift: The Case of Basque". In J. Fishman (Ed.). *Can threatened languages be saved?* (Pp. 234-259) Clevedon: Multilingual Matters.
- Ellis, R. (1985). *Understanding Second Language Acquisition*. Oxford University Press.
- Etxeberria Fx. (2006). "Euskara eta gaztelania ikastea bermatuko duen hizkuntz eredu baten alde". *Bat.Soziolinguistika aldizkaria* 60, 99-115.
- Etxeberria, F. et al. (2004). "Percepción y autovaloración de la adquisición bilingüe en los sujetos de segundo ciclo de E.S.O.". Proceedings from the Second University of Vigo International Symposium on Bilingualism (2002). Vigo: University of Vigo.
- Fishman, J.A. (1991): *Reversing Language Shift*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Fishman, J.A. (2001): *Can threatened languages be saved?*. Clevedon: Multilingual Matters.

- García, O. & Baker, C. (1995) *Police and Practice in Bilingual Education*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Gardner, R.C. (1985). *Social Psychology and Second Language Learning*. London: Edward Arnold.
- Genesse, F. (1992) *The challenge of modern education: Diversity*. Conferencia en el X Congreso Nacional de Pedagogía. Salamanca.
- Hamers, J. (1992). "Comportement linguistique et développement bilingue". In Etxeberria, F. & Arzamendi, J. (eds), *Bilingüismo y Adquisición de lenguas*. Bilbao: Universidad del País Vasco.
- Lambert, W.E. (1980). "The social psychology of language", in H. Gilrd, W.P. Robinson & P.M. Smith (eds), *Language. Social Psychological Perspectives*. Oxford: Pergamon.
- Lasagabaster, D. & Cenoz, J. (1998). "Language Learning in the Basque Country: Immersion versus non-immersion programmes". In J. Arnau and J.M. Artigal. *Immersion Programmes: An European Perspective* (494-500). Barcelona: European Institute of immersion Programmes.
- Martinez de Luna, I. (2001). "Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzeko eredu orokorraren proposamena". *Bat. Soziolinguistika aldizkaria* 40, 47-66.
- Perales, J. (2001) "Gainbegirada bat Hizkuntz Jarrereri Euskal Herrian". *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 40: 89-110.
- Pikabea, I., Etxeberria, F., Dendaluze, I., Bereziartua, J., Laskibar, I. (2007) "Eskoletako gazteentzat hizkuntzak ikastea zigorra ote?" *Tantak aldizkaria* 37: 7-25
- Siguan, M. & W.F. Mackey (1986). *Educación y bilingüismo*. Madrid: Santillana.
- Siguan, M. (2001). *Bilingüismo y lenguas en contacto*. Madrid: Alianza Editorial.
- Snow, C.E. (1992). "Perspectives on Second-Language Development. Implications for Bilingual Education". *Educational Researcher*, 21(2), 16-19.
- Torres-Guzman, M. & Etxeberria, F. (2005) "Modelo B/ Dual Language Programmes in the Basque Country and the US". *International Journal of Bilingualism and Bilingual Education*.

Eskolak ezin du bete hizkuntzaren lekua sozializazio prozesuetan beharrezkoa da euskara gaitasuna lortzeaz gain euskara gizarte bizitzarekin lotzea.